

Fundazioa, 2019ko Europako Arkeologia Ondarearen Saria

Santa Maria Katedrala Fundazioak, Arkeologoen Europako Elkarateak (EAA) ematen duen 2019ko Europako Arkeologia Ondarearen Sari garrantzitsua jaso du. Saria eman izana joan den irailaren 4an jakinarazi zen Bernan (Suitza), EAAren Urteroko 25. Bileraren Irekiera Ekitaldian.

Saria Ramiro González Arabako Diputatu Nagusi eta Fundazioaren Presidenteak eta Agustín Azkarate EHU/UPVko ondare arloko Ikerketa Taldeko eta Kultur Paisaiaren eta Ondarearen UNESCO Katedrako Zuzendariak jaso zuten. Bertan egon ziren, baita ere, Jo-xean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordea eta

Leandro Cámara Santa Maria Katedrala Fundazioko Zuzendari Teknikoa.

Europako Arkeologia Ondarearen Saria jasotzeko hautagaiak baloratzeko Batzordeak "bikaintasun zientifikoa eta proiektuak epe luzera dituen emaitzak" azpimarratu ditu, eta baita "hiri kudeaketa, turismo eta lurralde berritatzeko politika arloetan izan duen eragina ere". Felipe Criado EAAko presidentearen hitzetan, Fundazioa "gure erakundearen politikaren eredu da, arkeologia iraganaren eta gaur egunaren arteko irakurketa inklusiboa eraikitzeke erabiliz, Europa osorako etorkizun inklusiboa sustatuz".



Proiektu "aitzindaria eta iraultzailea"

Europako Arkeologia Ondarearen Sariaren epaimahaiak, Santa Maria Katedrala Fundazioaren proiektua definitzen duten bost elementu handitan oinarritu du bere erabakia:

- *Estrukturaren aldetik zituen arazoak zirela eta kolapsoaren ateetan zegoen Katedrala zaharberrituz egindako ondarearen babesa eta kontserbazioa. Katedrala, Munduko Ondare Zerrendan dago jasota 2015etik, Donejakue Bidearekin erlazioz ataturako ondasun gisa.*
- *2002an Europa Nostra Saria jaso zuen eta arkeologia, arkitektura eta historia ikerketa eta hezkuntza, gizarte, hiri eta ekonomia alderdiak bateratzen dituen ikuspegi integralarekin diseinatu den Zaharberritze Plan Gidatzailearen lehentasuneko izaera.*
- *Katedralaz gain, inguruko hiri eta gizarte ingurunea berreskuratuz izana.*
- *Eraikinaren ebaluazio arkeologikoa, Vitoria-Gasteizko hiria- ren eta bere jatorriaren ezagutza historikoa iraultzeko balio izan duena.*
- *"Obretan eta Irekita" ekimenaren ikuspegi paregabea, bisitariei zaharberritze lanak eta denboran zehar izan duten bilakaera zuzenean ikusteko aukera eman diena.*

